


2022

CUARESMA

MISINOA "EKIN"



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



Bat gara, partitimos camino

Cuaresma 2022 Garizuma

"Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión"

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



1. ACOGIDA Y PRESENTACIÓN

Berbaldi hau sinodo-senaren espiritualtasunaren inguruan bakarka eta alkartean sakontzeko deia da horretarako egokien dan aldian, Garizuma-aldian.¹ Hasteko, Espirituari erregu egingo deusagu alkarregaz egingo dogun otoitzagaz (pantailan ipini power pointaz).



2. HASIERAKO OHARRA: OTOITZA ESPIRITU SANTUARI

HEMEN GAUKAZUZ, ESPIRITU SANTUA, ZEURE IZENEAN BATUTA.

GURE BENETAKO AHOLKULARI ZARANA: ZATOZ GUREGANA,
GURE ALDE EGIN, SARTU GURE BIHOTZETAN.

ERAKUTSI EIGUZU, ERAKUTSI HELMUGARA ZELAN IRITSI.
EZ GAITEZALA OKERREKO BIDETIK JOAN, MAKAL ETA BEKATARIEI GERTATZEN JAKEN LEZ.
EZJAKINTASUNAK EZ GAIZALA GUZURREZKO BIDEETATIK EROAN.

EMOIGUZU BEREIZKETAREN DOEA,
GURE EKINTZEN OINARRIAN EZ DAITEN AURREERETXI ETA BURUTAPEN FALTSURIK IZAN.

EROAN GAIZUZ BATASUNERA ZUREGAN,
EGIA ETA ZUZENTASUNAREN BIDETIK ALDENDU EZ GAITEZAN,
LUR HONETAKO ERROMESALDIAN BETIKO BIZIA JADESTEN AHALEGINDU BAIZIK.

ZEURI ESKATZEN DEUTSUGU, AITA ETA SEMEAREKIN BAT,
GARAI ETA LEKU OROTAN JARDUTEN DOZUN HORRI, GIZALDI ETA GIZALDIETAN.

AMEN

¹ Sinodo-seneko Eleizaren aldeko Idazkaritzak prestatutako 'Vademecum' dalakoan: <https://www.synod.va/content/dam/synod/document/common/vademecum/Vademecum-ES-A4-compl.pdf> eta Gotzainen Batzarraren Kristau laikoak, Eleiza munduan (CLIM) (ik. 2. atala) eta Bilboko Gotzainak 2022ko Garizuma-Pazko aldirako idatzi dauan Pastoral Idazkian oinarrituta dago.



BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



3. SARRERA

Gotzainen Sinodoaren ezarpenaren 50. urteurrena gogoratzeko ekitaldian, 2015eko urrian, Frantzisko Aita Santuak hauxe adierazo eban: “bizi garan munduak, kontraesanak kontraesan, maitatu eta zerbitzatu egin behar dogun munduak, bere misinoaren alderdi guztietan **sinergiak sendotzeko** eskatzen deutso Eleizari”. Jainkoaren Herri osoari zuzentzen jako Eleizaren misinoan lankide izateko dei hau: bateatu baktzak “**konprometituta sentitu behar dau hainbeste behar dogun eleiz eta gizarte aldaketan**. Aldaketa honek **bakarka eta alkarlean bihotz-barritzea eskatzen dau**, gauzak Jaunak ikusten dituan lez ikusi daiguzan”.




Illo beretik hitz egiten dau On Joseba Segura Bilboko gotzainak 2022ko Garizuma-Pazko aldirako idatzi dauan pastoral idazkian, pandemiak emon deuskun ikuskera barria kontuan hartuta: “Bizkaiko Eleizan **garaien zantzuak irakurten ikasi gura dogu, alkar zainduz** eta gizalegezko gizartearen sorburu eta Jesusen alkarlearen bereizgarri diran alkarrenganako maitasunezko lokarriak sendotzen lagunduz”.

Gure lekuko Eleizan Aita Santuaren galdeketari erantzun eta Sinodoari ekarpena egin ondoren, eta Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko VI. Egitasmoaren prestaketari berrekin aurretik, Garizuma-Pazko aldi hau aukera ona da munduan Eleiza izateko eta egiteko eran doguzan jarrerak eta espiritualtasuna berrikusteko eta lantzeko.

4. LA SINODALIDAD, “HAY OTRA FORMA” DE SER IGLESIA

‘Sinodo’ hitzak “alkarregaz bide egin” adierazoten dau. Sinodo-sena Eleizaren izaeraren osagaia da. Sinodo-seneko Eleiza izatea, Kontzilio ekumenikoetan adierazoten da, Gotzainen Sinodoetan, Eleizbarrutietako Sinodoetan eta Eleizbarrutietako eta parroketako Batzordeetan. Hainbat era dago Eleiza osoan “sinodo-sena” bizitzeko.



Halanda be, sinodo-seneko Eleiza izatea ez da dagozan erakunde honeetara murrizten. Hain zuzen be, sinodo-sena gertaera edo eslogana baino gehiago da, batez be **Eleizak munduan dauan misinoa bizitzeko estiloa da eta izateko era**. Eleizaren misinoa aurrera eramateko, ezinbestekoa da Jainkoaren herri osoa abian izatea, kide baktzak bere eginkizun erabakigarria garatu behar dau eta danek alkarri lotuta egon behar dabe. Adin batekoak zein bestekoak izan, nork bere aletxo jarri leike. Sinodo-seneko Eleizak alkartasunean bide egiten dau guztien misinoa garatzeko, kide diran pertsona guztien eta baktxaren partaidetzaren bidez. **Epe luzera sinodo-sen handiagoko Eleiza izatean datza**.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Gotzainen Sinodoaren ezarpena izan zan Vatikanoko II.a Kontzilioaren frutuetakoa bat. Gotzainen Sinodoa, orain arte, Aita Santua buru dala ospatu dan gotzainen batzar lez egin bada be, Eleizak gero eta argiago dau sinodo-sena dana **Jainkoaren herri osoak egin behar dauan bidea**. Hau dala-eta, sinodo-prozesua dagoeneko ez da gotzainen batzar nagusia bakarrik, bateatu guztiek egin behar daben bidea baino eta bide horretan lekuko Eleiza bakotzak funtsezko eginkizuna dau.

Vatikanoko II.a Kontzilioak ideia bat sendotu eban: bateatu guztiei, hierarkiari zein laikoari, Eleizaren misioa salbatzailean eraginkortasunez parte hartzea dagokiela (LG 32-33). Fededunek Espiritu Santua hartu dabe bateo eta sendotzan, eta, Kristoren Gorputzaren atal izanda, askotariko doe eta karismak dabez Eleizaren erabarritze eta eraikuntzarako. Holan, **Aita Santuaren eta gotzainen doktrina-aginpidea Jainkoaren herriaren sensus fidelium dalakoagaz, hau da, ahots biziagaz hartu-emonean dago**. Sinodo-senez egindako bidean, Jainkoaren herriaren ahotsean oinarrituta Jainkoaren borondate ahalik eta gehien islatuko daben pastoral erabagiak hartzea da xedea.



Sinodo-sena, dei da Jainkoaren herri osoarentzat, baita artzaintzat be, alkarregaz bide egin daien, Espiritu Santua eta Jainkoaren Hitza entzunez, Eleizaren misioan parte hartzeko Kristok gure artean ezartzen dauan alkartasunean. Bateoaren bidez, Jainkoaren herri osoak duintasun eta bokazio bera izatean datza.

5. ARDURAKIDETASUNA ELEIZAREN BIZITZAN ETA MISIOAN

Alkartasuna, partaidetza eta misioa da Sinodoaren goiburua. Jainkoaren herri osoaren partaidetza erabakitasetan bultzatu gura dau. Dei egin jaku guztioi, **gure Bateoaren** arabera, gogotsu eta eraginkortasunez parte hartu daigun Eleizaren bizitzan. Emakume eta gizon, gazte eta nagusi, danok alkarri entzun behar deusagu parroketan, kristau alkarte txikietan, mobimentu laikoetan, komunitate erlijiosoetan eta alkartasunerako beste hainbat eremutan



Baina entzute hori alkartasuna eta misioa binomioaren barruan gauzatuko da. Alde batetik, partaidetzak alkartasunean haztea ekarri behar dau eta horretarako ezinbestekoa da entzutea, aldatzeko prest egotea eta bereizketarako jarrera izatea. Bestetik, partaidetza ez da Eleizaren barruan bakarrik gauzatuko, agintea eskuratzeko borroka endogeno lez. Mundura eta Eleizak sasoi eta leku bakotzeko gizartean garatu behar dauan misinora begira gauzatuko da.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Sinodo-seneko Eleizari buruzko Sinodoaren ardurakidetasunerako deia, azken batean, Eleizaren **bizitza eta misinoan** laikotzaren partaidetza eta erantzukizuna bultzatzeko deia da. 1991ean, EGBak oraindik indarrean dan Kristau Laiko, Eleiza Munduan (CLIM) agiria argitaratu eban. Bertan, ebanjelizatze barriaren sustapenean laikoen erantzukizuna ezinbestekoa dala esaten da.

EBANJELIZATZE BARRIA SUSTATZEKO, GURE ALKARTEEN -ELEIZBARRUTI ETA PARROKIA- BIZITZA BIZIAGOTU ETA BARRITZEKO ETA MISINO- EBANJELIZATZEA SUSTATZEKO, EZINBESTEKOA DA LAIKOEN DUINTASUN ETA ARDURAKIDETASUNA ERAGINKORTASUNEZ AUTORTZEA ETA EUREN PARTE HARTZEA ERAGITEA ELEIZAN ETA GIZARTEAN (CLIM 30).

Aldi berean, ezinbestekotzat jotzen da dualismo eta kontrajarpenak gainditzea. Kide guztiak alkartasunaren zein misnioaren arduradun dira, kontrajartze barik, baztertze barik (CLIM, 32).

Era berean, aparteko deialdia egiten da Eleizan emakumaren bardintasuna era praktikoan autortu daiten.

ELEIZAN GUZTIEK, ETA EMAKUMEEK, "PROTAGONISTA LEHEN LERROAN", EMAKUMEAREN DUINTASUNA DEFENDATU BEHAR DABE BEREIZKERIA OROREN AURKA. EZINBESTEKOA DA EMAKUMEA ELEIZAN DAUAN DUINTASUN ETA ERANTZUKIZUN ETA DUINTASUNAREN AUTORTZA TEORIKOTIK AUTORTZA PRAKTIKORA IGAROTEA (CLIM 34).

Azkenik, Eleizaren bizitza eta misinoan ardurakidetasuna bultzatzeko hainbat jardunbide eta proposamen aurkezten eban. **Elizan eta gizartean azaltzen diran konpromiso eta lekukotasunak aitatu daitezke.**

6. SINODO-ENTZUTEA ETA BEREIZKETA ESPIRITUALAREN ARTEA




Sinodo-prozesua, batez be, **prozesu espirituala da**. Ez da ez datuak batzeko jardute mekaniko hutsa, ez da batzar eta eztabaidak egitea bakarrik. Sinodo-entzutea **bereizketara begira** dago. Bereizketa pertsonal eta komunitarioaren artea ikastea eta gauzatzea eskatzen deusku. **Alkar etzun, fede-ohitura entzun, sasoi zantzuak entzun, Jainkoak guztioi dinoskuna bereizteko.**

Sinodoaren hasierako ekitaldian Mk 10, 17-30 Ebanjelioko txatala irakurri zan: «Maisu ona, zer egin behar dot betiko bizitza ondareztat jasotzeko?». **Barri Ona irakurri.**

Frantzisko Aita Santuak, Ebanjelioko txatal hau oinarritzat hartuta, sinodoa egitea zer da azaldu eban: aurkitu, entzun, bereizi.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

- Bideoa ikusi daiteke (13 min)²



PARA VER EL VÍDEO,
PULSA SOBRE LA IMAGEN
O ESCANEA EL CÓDIGO QR



- Edo homilia irakurri³



PARA ACCEDER AL
DOCUMENTO,
PULSA SOBRE LA IMAGEN
O ESCANEA EL CÓDIGO QR



- Ebanjelioa eta homilia hausnartu.
- Abestia entzun, *“Tiempo para descubrir”*⁴



PARA VER EL VÍDEO,
PULSA SOBRE LA IMAGEN
O ESCANEA EL CÓDIGO QR



- Isilunea.

Galdera bi bakarka gogoeta egiteko (edo bi edo hiru lagunekoa taldetxoetan alkarriketan jarduteko):

- Eleiza izatea bizitzeko dodan eran: ataraten ete naz besteen bila?
- Entzuten ete dodaz bestea?
- Alkar zaintzen ete dogu?
- Eleiza izateko eran: alkarregaz bide egiteko jarrera nagusitzen da ala bakotxa bere aldetik doa?
- Hemen eta orain Jainkoaren deia bereizte aldera, erabagiak alkarregaz hartzea lehenesten dogu?

² https://www.youtube.com/watch?v=NzK_2m5Z4Tw%20o

³ <https://www.vatican.va/content/francesco/es/homilies/2021/documents/20211010-omelia-sinodo-vescovi.html>

⁴ <https://youtu.be/OX1uHLcUH8>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

7. "SER SINODAL". 8 SUGERENCIAS PARA EL ACTUAR.

Eleizak gaur egun aurrez aurre dituan bidekurutzeetan sinodo-sena gauzatzearen inguruan dauan ikuspuntua agertzeraz emon dau hainbat bider. Honeek dira berak nabarmentzen dituan **sinodo-senari** lotutako jarrerak

- Ezinbestekoa da gauzak batera jartea.⁵
- Apaltasunez entzun eta, aldi berean, ausardiaz hitz egin.⁶
- Alkarrizketak barritasunera garoaz.⁷
- Bihotz-barritze eta aldaketara zabaldu.⁸
- Aurreretxi eta estereotipoak atzean itzi⁹
- Klerikalismoa gainditu¹⁰
- Nork bere burua askitatzat hartzeaz uko egin¹¹
- Ideologiak gainditu¹²

8. ITXAROPENA SORRARAZO

Askotan, bidelagunen arteko solasaldietan, Emauseko ikasleei gertatzen jaken lez (Lk 24, 13-35), arrakastak gogoratu eta ilusinoa erakutsi ordez, **etsipena eta tristura** agertzen dira: "guk uste genduan... eta begiratu zer gertatzen ari dan". On Joseba Segura Bilboko gotzainak Garizuma-Pazko aldiko pastoral idazkian dinoanez, "Ohikoa da gure bizitzan zapuzteak bizi izatea, baina gure azterketetan arrangura nabarmentzen danean, diskurtsoa antzu bihurtzen da eta geldiarazo egiten gaitu. Ahuleziaz jantzitako edozein egoera ondo irakurri gura badogu, ez deiegun besteei errua leporatu".



Itxaropena sorrarazo daigun. Itxaropen-argi izan behar dogu, ez zoritxarren profeta. Sinodoak **amets egiteko une dira eta Frantzisko aita santuan dinoan lez, "etorkizunagaz denpora emotea" da kontua.**

⁵ Ausardia eta zintzasunez (parresia) hitz egin behar dogu, askatasuna, egia eta maitasuna buztartzeko. Danok hazi gaitkez ulermenean alkarrizketaren bidez. Sinodo-prozesuak aukera emoten deusku benetako entzuteaz zabaltzeko, alde aurretik emondako erantzunez eta aurreretziaz baliatu barik.

⁶ Danok dogu besteen entzuteaz gozatzeko eta hitz egiteko eskubidea. Sinodo-alkarrizketarako ezinbestekoa da ausardia bai hitz egitean eta baita entzutean be. Kontua ez da eztabaidan jardutea besteak konbentzitzeko. Besteek dinoena Espiritu Santuak guztion onerako esaten dauan berbatzak hartu behar dogu (1 Ko 12, 7).

⁷ Besteengandik entzun doguna kontuan hartu eta gure eretxiak aldatzeko prest egon behar dogu. Entzuten dauan eta bidean dan Eleizaren zantzu gara. Entzutean, Eleizak bere herriaren garrasia entzuten dauan Jainkoaren eredu bere egiten dau.

⁸ Askotan, aurka egiten dogu Espirituak ekintzara bultzatzen gaituanean. Autokonplazentzia eta erosotasuna lako jarrerak alde batera itzi behar doguz, erabakiak hartzean, iraganetako moldeetara begiratzeraz garoez-eta.

⁹ Larrituta egon gaitez gure ahultasunagaitik eta pekatutako joeragaitik. Entzuteko lehenengo urratsa, burua eta bihotzaokerreko bideetarik ezjakintasun eta banaketara garoezan aurreretxi eta estereotipoetatik askatzea da.

¹⁰ Eleiza Kristoren Gorputza da, askotariko karismek aberasten dabe eta kide bakotxak eginkizuna dau beren-beregi garatzeko. Gure artean alkarren mendeko gara eta guztiok duintasun bera dogu Jainkoaren herri santuan. Kristoren irudiko, benetako ahalmena zerbitzuan datza. Sinodo-senak herriari adi entzuteko eskatzen deutse artzainei.

¹¹ Danok gagoz ontzi berean. Alkarregaz osatzen dogu Kristoren Gorputza. Alkarregandik ikasi daiegu, alkarregaz bide egin eta besteen zerbitzura jardun. Askotan banandu egiten gaituen harresietatik –adina, generoa, jatorria, aberastasuna, arrakala digitala, askotariko trebetasunak, heziketa-maila desbardinak, e.a.- harago zubiak eraiki daiegu.

¹² Ideiei gizon eta emakumeek zehazki bizi daben fede bizitzari baino garrantzia gehiago emotearan arriskua saihestu egin behar dogu.

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

Dei egiten jaku sinodo-sena gure alkartean bizi daigun, baztertuta edo bakarrik sentitu diranakaz, gizartean Eleizatik gehiago itxaroten dabenakaz. Ebanjelioaren poztasunean oinarritutako etorkizunaren osoko ikuspuntua sortzean datza.

Datozan hilabeteetan, **Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko VI. Egitasmoa prestatzeko aukera izango dogu eta alkartean bereizketa sakona egingo dogu.** Hartu daiguzan erabakiak partaidetza ahalik eta zabalenaz hartu behar doguz eta banaketa eta antzutasun iturri ez ezik alkartasun sakonagoa eratzen lagundu behar deuskue. Era berean, geure zilberrari begiratzeari itzi eta munduan Jainkoaren erreinuaren Bari Onaren zeinu eraginkor izaten lagunduko ahal deuskue!